datozen nekazaritza-lurrei lotutako ondasun eta eskubideez osatuta, edo, kasuan kasu, titulu honetan jasotako esku-hartze eta sustapen neurriak aplikatuta sortu diren lurrez osatuta. Funtsak foru-esparrukoak izango dira, eta lurralde historiko bakoitzetik hartutako nekazaritza-lurrei buruzkoak eta/edo nekazaritza-lurrei lotutako ondasun edo eskubideei buruzkoak hirurak ere.

2.– Euskal herri-administrazioek sustatu egingo dute nekazaritza-lurrak, bai eta lur horiei lotutako ondasunak eta eskubideak ere, nekazaritza-lurren funtsei borondatez lagatzea. Helburu horrekin, nekazaritza-lurrak eta lur horiei lotutako ondasunak eta eskubideak nekazaritza-lur funts bati borondatez lagatzen dioten jabeek lege honen 96. artikuluan aurreikusitako sustapen-neurrien onurak jaso ahal izango dituzte.

3.– Nekazaritza-lurren funtsen aktiboak hainbat helburutara bideratuko dira lehentasunez; ondorengo hauek dira helburuak:

- a) Nekazari gazteak finkatzea.
- b) Nekazaritza-ustiategi berriak sortzea, landa-gunetako exodoa eragozteko.
- c) Egun martxan diren nekazaritza-ustiategiak handitzea.
- d) Nekazari-herrixkak edo lursail-eremuak sortzea, bertan nekazaritza-jarduerak gauzatu ahal izateko.

4.– Arauz ezarriko dira nekazaritza-lurrak eta lur horiei lotutako ondasunak eta eskubideak biltzeko prozedurari atxikitako suposamenduak, baldintzak, eskakizunak eta onurak; funtsen aktiboak erabilera-erregimenean esleitzetik eratorritakoak, eta funts batean dauden bitartean nekazaritza-lurrak eta haiei lotutako ondasunak eta eskubideak erabili eta gozatzearenak.

15. artikulua.– Nekazaritza-lurren bitartekaritza-bulegoak.

Nekazaritza-lurren funtsen ondasunak eta eskubideak kudeatzeko eta administratzeko, nekazaritza-lurren bitartekaritza-bulegoak sortuko dira, nekazaritza-gaietan eskumena daukan foru-aldundiko sailari atxikiak, eta aplikatzekoa den arauaz ezarritako forma juridikoa dutela.

16. artikulua.– Balio agrologiko handiko lurri babes berezia ematea.

1.– Balio agrologiko handiko lurriak –hau da, bat datozenak euskal landa-eremua antolatzeke unean-unean indarrean dagoen erreferentzia-esparruan ezarritako definizioarekin– estrategikoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan, eta interes sozialekotzat joko dira horrenbestez.

2.– Balio agrologiko handiko lurri inguruan Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusitako proiektu edo egintza orori behin betiko onarpena eman baino lehen, nahitaezkoa da nekazaritza-gaietan eskumena duen

derechos ligados al suelo agrario que provengan de la realización de otros negocios jurídicos, y por el suelo proveniente, en su caso, de la aplicación de las medidas de fomento e intervención recogidas en este título. Estos fondos tendrán ámbito foral y estarán constituidos por estructuras patrimoniales concernientes a los suelos agrarios o bienes o derechos ligados al suelo agrario captados en cada territorio histórico.

2.– Las administraciones públicas vascas fomentarán las cesiones voluntarias del uso del suelo agrario y de los bienes o derechos ligados al mismo a los fondos de suelo agrario. A tal fin, los propietarios de suelo agrario que cedan su uso y el de los bienes y derechos ligados al mismo de forma voluntaria a un fondo de suelo agrario, podrán beneficiarse de las medidas de fomento previstas en el artículo 96 de esta ley.

3.– Los activos de estos fondos de suelo agrario se destinarán preferentemente a los siguientes fines:

- a) Asentamiento de personas jóvenes dedicadas a la agricultura.
- b) Creación de nuevas explotaciones agrarias para evitar el éxodo rural.
- c) Ampliación de las explotaciones agrarias ya existentes.
- d) Creación de agroaldeas o polígonos de parcelas con capacidad para soportar actividades agrarias.

4.– Reglamentariamente se establecerán los supuestos, requisitos, condiciones y beneficios afectos a los procedimientos de captación de suelo agrario y bienes o derechos ligados al mismo; los derivados de la adjudicación de los activos de los fondos en régimen de uso, y los de disfrute y uso del suelo agrario y bienes o derechos ligados al mismo mientras permanezcan en un fondo.

Artículo 15.– Oficinas de intermediación de suelo agrario.

Para gestionar y administrar los bienes y derechos de los fondos de suelo agrario se constituirán las correspondientes oficinas de intermediación de suelo agrario, adscritas al departamento foral competente en materia agraria, bajo la forma jurídica que se ajuste a la normativa de aplicación.

Artículo 16.– Protección especial del suelo de alto valor agrologico.

1.– Los suelos de alto valor agrologico, así definidos conforme a lo establecido en el marco de referencia vigente en cada momento para la ordenación del espacio rural vasco, tendrán un carácter estratégico para la Comunidad Autónoma del País Vasco y la consideración de bienes de interés social.

2.– Cualquier proyecto o actuación administrativa prevista en la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre suelos de alto valor agrologico exigirá la emisión de informe por el órgano foral competente en materia

foru-organoak txostena egitea. Txosten horretan proiektu edo egintzak zenbaterainoko eragina izango duen neurtu beharko da. Txostena Lurralde Antolamendurako Batzordeari helaraziko zaio, azter dezan. Ondoren, batzordeak berak bere txostena prestatuko du, azken txostena, loteslea izango dena hirigintza-planeamenduko figurei dagokienez.

17. artikulua.– Nekazaritza-lurren trukea sustatzea.

1.– Foru-organoek eta nekazaritza-lurraren bitartekaritza-bulegoek (15. artikuluan jasoak) jabeen artean landa-finkak borondatez trukatzeko erraztasunak emango dituzte, trukearen helburua ondorengo hauetako bat baldin bada.

a) Lurra lantzeko unitate minimoa osatzeko behar den azalera lortzea.

b) Finka horietako baten labore-eremua handitzea, finka mutante bat erantsita.

c) Ustiategiaren garapen teknologikorako beharrezko diren instalazioak ezartzea, edo ustiategiari eta bere ekoizpenei lotutako industria-instalazioak jartzea.

2.– Helburu horrekin, borondatezko truke prozesuetan parte hartzen duten nekazaritza-lurren jabeek lege honen 96. artikuluan aurreikusitako sustapen-neurrien onurak jaso ahal izango dituzte.

3.– Nahitaezko trukearen xedea da elkarri aldatzea administrazioen landa-finken edo nekazaritza-ustiategi pribatiboen jabetza-titulartasuna, eta nahitaezko trukearen xede diren finken jabeek edo eskubideen titularrei dagozkien jabetza-titulartasunak.

4.– Eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek obra publikoak egiteko xedea daukaten herri-onurako arrazoietan oinarrituta bakkari erabaki dezakete nahitaezko trukea eginaraztea.

5.– Arauz zehaztuko dira bai aurrekontu materialak, bai nahitaezko trukearen egintza deklaratzeko baldintzak eta prozedura, bai eta borondatezko trukearen onurak eta jardunak ere.

18. artikulua.– Titulartasun publikoko lurzorua kudeatzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek zainduko dute titulartasun publikoko nekazaritza-lurrei ematen zaien erabilera lege honetako 12. artikuluan zehaztutako xedapen orokorretik eratorzen diren aginduekin bat datorrela.

2.– Aurreko paragrafoan sartzen ez diren eta bere helburuak betetzeko interesgarri diren titulartasun publikoko lurrak nekazaritza-lurren funtsetan (lege honen 14. artikuluan arautuak) sartzea bultzatuko da.

agraria con carácter previo a su aprobación definitiva. Este informe deberá valorar la repercusión del proyecto o actuación. El informe se trasladará a la Comisión de Ordenación del Territorio para su consideración, antes de la emisión por esta comisión de su informe final, el cual será vinculante para las figuras de planeamiento urbanístico.

Artículo 17.– Promoción de la permuta de suelos agrarios.

1.– Los órganos forales, así como las oficinas de intermediación de suelo agrario contempladas en el artículo 15, favorecerán los procesos de permuta voluntaria de fincas rústicas entre los propietarios y las propietarias cuando la misma tenga por finalidad alguna de las siguientes:

a) Llegar a conseguir la superficie precisa requerida como unidad mínima de cultivo.

b) Aumentar la dimensión de cultivo de cualquiera de las fincas mediante la agregación de una finca mutante.

c) Establecer las instalaciones precisas para el desarrollo tecnológico de la explotación agraria o incorporar instalaciones industriales ligadas a la explotación y sus producciones.

2.– A tal fin, los propietarios y las propietarias de suelo agrario que participen en los procesos de permuta voluntaria podrán beneficiarse de las medidas de fomento previstas por el artículo 96 de esta ley.

3.– La permuta forzosa tendrá por objeto el recíproco cambio de titularidades dominicales respecto de fincas rústicas o explotaciones agrarias de carácter privativo de las administraciones y las correspondientes a las personas propietarias de las fincas o las personas titulares del derecho objeto de permuta forzosa.

4.– Las administraciones públicas vascas competentes sólo podrán acordar la permuta forzosa cuando se base en razones de utilidad pública que tengan por objeto obras públicas de interés general.

5.– Reglamentariamente se determinarán los presupuestos materiales, las condiciones y el procedimiento de declaración de acto de permuta forzosa y los beneficios y las actuaciones en el caso de permuta voluntaria.

Artículo 18.– Gestión de suelos de titularidad pública.

1.– Las administraciones públicas vascas velarán para que en los terrenos que sean de su titularidad se dé un uso del suelo agrario conforme a los preceptos emanados de la disposición general descrita en el artículo 12.

2.– Se propiciará la incorporación a los fondos de suelo agrario, regulados en el artículo 14 de esta ley, de aquellos suelos de titularidad pública no incluidos en el apartado anterior y que sean de interés para cumplir los fines del mismo.

19. artikulua.– Lurzatiak bateratzea.

1.– Lurzatiak bateratzearen helburua da egitura eta neurri egokiak dituzten ustiategiak eratzea eta mantentzea, jabaria, jabetza edo gozamina edozein dela ere; hartara ustiaketa hobea eta errentagarritasun handiagoa lortuko dira laborantzan, abeltzaintzan edo basogintzan.

2.– Lurzatiak bateratzeko prozedura ofizios edo partikularren eskariz hasi ahal izango da, arauz ezarriko diren baldintzak eta prozedura betez. Bateratzea erabakitzeo eskumena foru-organo eskudunari dagokio, gunea zein lurraldetan dagoen kontuan hartuta. Eskualde edo gune batek lurralde historiko bat baino gehiagoko lurrak hartzen baditu, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari egokituko zaio eskumena, dagokien foru-aldundietako diputatuen kontseiluek batera proposamina eginda. Interes sozial eta publikoa badu, dagokion dekretua egingo da, lurzatiak bateratze hori onura publikokoa dela deklaratzeko eta premiaz gauzatzeko.

20. artikulua.– Nekazaritza-lurrak gutxiegi erabilitzea.

1.– Lege honen ondorioetarako, nekazaritza-lursail bat gutxiegi erabilitakotzat joko da, honako kasu hauek diren bat edo gehiago gertatzen badira:

a) Lurrak degradazio-prozesuan baldin badaude eta neurri zuzentzailek ezarri ez bazaie.

b) Lur horietan egiten diren jardunbide edo erabilera desagokiek arriskuan jartzen badituzte uztak, alboko lursailen ustiapena edo ingurune naturala.

c) Nekazaritza-jarduerarik gabeko nekazaritza-lurra, non eta ez den hala laborantza aldetik interesgarria delako edo lurrak hala edukitzea justifikatzen duen aparteko arrazoiren bat dagoelako.

2.– Agintari eskudunek gutxiegi erabilitako nekazaritza-lursail bat atzematen dutenean, ikuskapen-akta bat egingo dute, halakotzat deklaratu dute eta lursail horren jabeak jakinaraziko diote egoera horri eusteak zer ondorio izan ditzakeen, lege honetan xedatutakoaren arabera.

3.– Foru-administrazioek jarraipena egingo diote gutxiegi erabilitakotzat jotako nekazaritza-lur horren erabilerari. Lursail batean hiru urtez jarraian mantentzen bada gutxiegi erabilitako nekazaritza-luraren izendapena, lege honen 104. artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko da lursail horren titularra, eta lursaila helburu horrekin sortutako gutxiegi erabilitako nekazaritza-luraren inbentarioan sartuko da.

4.– Arauz ezarriko da nekazaritza-lurrak gutxiegi erabilitakotzat jotzeko prozedura, bai eta gutxiegi erabilitako nekazaritza-luraren inbentarioa sortzeko eta kudeatzeko prozedura ere. Urtero eguneratuko da inbentario hori.

Artículo 19.– Concentración parcelaria.

1.– La concentración parcelaria tiene como fin la constitución y mantenimiento de explotaciones de estructura y dimensiones adecuadas que permitan un mejor aprovechamiento y rentabilidad en atención a su destino agrícola, ganadero o forestal con independencia de su dominio, posesión o disfrute.

2.– El procedimiento de concentración podrá iniciarse de oficio o a petición de los particulares, con los requisitos y siguiendo el procedimiento que se fijará por vía reglamentaria. La competencia para acordar la concentración corresponde al órgano foral competente en cuyo territorio se encuentra la zona. Cuando una misma comarca o zona comprenda tierras situadas en más de un territorio histórico, la competencia corresponderá al Consejo de Gobierno a propuesta conjunta de los consejos de diputados de las diputaciones forales respectivas. La causa del interés social y público informará el correspondiente decreto que contemple la declaración de utilidad pública y urgente ejecución de la concentración parcelaria de que se trate.

Artículo 20.– Infratilización del suelo agrario.

1.– A los efectos de esta ley, se entenderá por suelo agrario infratilitado aquel en el que concurren una o varias de las circunstancias siguientes:

a) Suelos en proceso de degradación y sin aplicación de medidas correctoras.

b) Suelos donde las malas prácticas agrarias o usos inconvenientes pongan en peligro las cosechas, el aprovechamiento de las parcelas colindantes o el medio natural.

c) Suelos agrarios que permanezcan sin actividad agraria, salvo que agrónomicamente se determine de interés o se den causas excepcionales justificadas.

2.– Cuando las administraciones competentes detecten un suelo agrario infratilitado levantarán acta de inspección, procederán a su declaración y apercibirán al titular de dicho suelo de las consecuencias que se derivan del mantenimiento de dicha situación conforme a lo que establece esta ley.

3.– Las administraciones forales realizarán un seguimiento de la utilización del suelo declarado como infratilitado. Transcurridos tres años en los que se haya mantenido la declaración de un suelo como suelo agrario infratilitado, su titular será sancionado conforme a lo dispuesto en el artículo 104 de la ley y se procederá a su inscripción en el inventario de suelo infratilitado creado al efecto.

4.– Reglamentariamente se establecerá el procedimiento para la declaración de suelo agrario infratilitado y la creación y gestión del inventario de suelo agrario infratilitado, que deberá ser actualizado anualmente.

21. artikulua.– Lurraren erabilera nekazaritza-lurren funtsei lagatzea.

1.– Lege honen ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-arloan eskumena duen sailak proposatuko du, dekretu bidez, gutxiegi erabiltzen dela eta landa-lursail edo landa-finka batek lurraren erabileraren funtzio soziala ez duela betetzen deklaratzeko.

2.– Landa-lursail edo -finka batek ez du betetzen lurraren erabileraren funtzio soziala, baldin eta lursail edo finka hori bi urtez segidan egon baldin bada gutxiegi erabilitako lurren inbentarioan (20. artikuluan, nekazaritza-lurrari buruzkoa, ezarritakoa).

3.– Deklaratzen bada landa-lursail edo -finka batek ez duela betetzen lurraren erabileraren funtzio soziala, lursail edo finka hori kokatuta dagoen ustiatetikotitularrak nahitaez laga beharko dizkio lursailok, hamar urterako gutxienez eta hogeita hamar urterako gehienez, nekazaritza-lurren funtsei, baldin eta lur horien jabea bada.

Aldiz, lursailaren erabilera eta jabetza beste figura juridiko batzuen arabera arauturik badaude, jabeari itzuliko zaizkio; nolahi ere, ez da desegingo bien arteko akordioa, inola ere, eta, beraz, zehapena jaso duenak bere gain hartu zituen kontratu-betebeharrak betetzen jarraitu beharko du.

4.– Arauz garatuko da lurraren erabileraren funtzio soziala ez dela betetzen deklaratzeko prozedura, bai eta deklarazio horren ondorengoa ere.

III. TITULUA

NEKAZARITZA EKOIZPENA

I. KAPITULUA PRINTZIPIO OROKORRAK

22. artikulua.– Azpisektore produktiboak.

1.– Foru-aldundiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoan finkatuta dauden edo egon litezkeen nekazaritza-azpisektoreak bultzatu eta sustatuko dituzte; betiere, foru-aldundiek zehaztutako helburu zehatzen eta jardute-ildoan arabera, eta nekazaritza-ekoizpenaren arloan legeak ezarritako helburu nagusiekin bat etorriz.

2.– Azpisektore jakin baterako bultzatu eta sustatu beharreko helburu, jardute-ildo eta neurri zehatzak azpisektoreetako programa espezifikoaren barruan txertatuko dira. Programa horietan berariaz ezarritako indarraldia eta laguntzen finantza-esparrua.

Artículo 21.– Cesión de uso del suelo a los fondos de suelo agrario.

1.– A los efectos de esta ley, el departamento competente en materia agraria de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, mediante decreto, propondrá acordar respecto a una parcela o finca rústica la declaración de incumplimiento de la función social del uso de la tierra, por su infrutilización.

2.– Se considerará incumplida la función social del uso de la tierra respecto a una parcela o finca rústica si la misma ha permanecido en el inventario del suelo infrutilizado previsto en el artículo 20 durante dos años consecutivos.

3.– La declaración de incumplimiento de la función social del uso de la tierra respecto a una parcela o finca rústica conllevará, para la persona titular de la explotación donde se ubique la parcela o finca rústica, la cesión temporal de uso, por un plazo no inferior a diez años ni superior a treinta, a los fondos de suelo agrario de la parcela o parcelas implicadas de las que sea propietario o propietaria.

En el supuesto de dicha declaración para parcelas afectadas bajo otras figuras jurídicas de uso, revertirán a la persona titular de la propiedad, sin que en ningún caso suponga una rescisión del acuerdo entre ambos, perviviendo, por tanto, el cumplimiento de las obligaciones contractuales que hubiese asumido la persona sancionada.

4.– Reglamentariamente se desarrollará el procedimiento para la declaración de incumplimiento de la función social del uso de la tierra, así como el derivado de dicha declaración.

TÍTULO III

DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA

CAPÍTULO I PRINCIPIOS GENERALES

Artículo 22.– Subsectores productivos.

1.– Las diputaciones forales, en colaboración con la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, impulsarán y fomentarán el desarrollo de los subsectores agrarios con implantación en la Comunidad Autónoma del País Vasco o que potencialmente puedan implantarse, de acuerdo con los objetivos específicos y líneas de actuación que aquellas determinen, conforme a los objetivos generales marcados por la ley en el ámbito de la producción agraria.

2.– Los objetivos, líneas de actuación y medidas específicas a impulsar y potenciar para un determinado subsector deberán enmarcarse dentro de programas sectoriales específicos, los cuales fijarán expresamente el ámbito temporal de aplicación y el marco financiero de apoyo.

3.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek azpi-sektoreen egituraketa sustatuko dute, beren interesak defendatzeko oinarritzko estrategia da eta.

23. artikulua.– Ekoizpen-metodoak.

1.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek nekazaritza-jarduera ekonomia aldetik modu bideragarrian eta iraunkorrean gauzatzen dela ziurtatuko dute; bai eta erabilitako ekoizpen-metodoek nekazaritza-lurra-
ren eta bere inguruaren iraunkortasuna, elikagaitarako ekoizpenen osasun-segurtasuna eta animalien ongizatea bermatzen dutela, eta nekazaritza-jarduera merkatuaren eskaeretara egokitzen dela.

2.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek transgenikorik gabeko produktuen alde eta transgenikorik erabiltzen ez duten ekoizpen-metodoen alde egingo dute, gizakiaren elikakatera bideratutako produktuetan.

3.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek artisau-ekoizpenaren garapenaren alde lan egingo dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak erregelamendu bidez arautuko du ekoizpen hori. Besteak beste, babestutako ekoizpen motak, higie-
ne eta osasun aldetik bete beharreko baldintzak, identifikatu-
ko duen kalitate-ikurra, kudeaketa- eta kontrol-sistema, eta Artisau Ekoizleen Erregistroa abian jartzea jasoko dira araudi horretan. Artisau-ekoizpenak Lege honen IV. tituluan jasotako printzipioak errespetatu beharko ditu beti; alegia, identifikazioaren, elikagai-segurtasunaren eta trazabilitatearen printzipioak.

4.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek honako helburuak dituzten ekoizpen-metodoak sustatuko dituzte lehentasunez:

- a) Kalitatezko elikagaiak lortzea.
- b) Nekazaritza-produktuak lortzea ekoizpen integratuaren bidez.
- c) Nekazaritza-produktuak lortzea ekoizpen ekolo-
gikoaren bidez.
- d) Basogintza-ekoizpen iraunkor ziurtatua iristea.
- e) Bertako espezie eta arrazak mantentzea.
- f) Basoko espezie-aniztasuna sustatzea.

5.– Hainbat produkzio-metodo daudenez, horiek arautzeko eta kontrolatzeko araudia egin eta aplikatuko da, eta metodo edo laborantza horiek bateragarri diren erabakitzeko zehaztapen teknikoak ezarriko dira.

6.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek Euskal Autonomia Erkidegoko material genetikoak babestu, sustatu eta bultzatuko dute, elikagaiak ekoitzi eta egiteko eta laborantzako zein basogintzako jarduerara edo erabileratan erabiltzeko baliagarri den heinean. Horretarako, besteak beste, landareen material genetikoaren biltegiak jarriko dituzte, landare-espezieak, laborantzakoak eta basogintzakoak gordetzeko, autoktonoak batez ere, eta

3.– En cualquier caso, las administraciones agrarias vascas fomentarán la vertebración subsectorial como estrategia básica para la defensa de los intereses que les son propios.

Artículo 23.– Métodos de producción.

1.– Las administraciones agrarias vascas velarán por que la actividad agraria se desarrolle de forma viable y económicamente sostenible, según métodos de producción que preserven la sostenibilidad del suelo agrario y su entorno, la seguridad sanitaria de las producciones con fines alimentarios y el bienestar animal, y se adapte a las demandas del mercado.

2.– Las administraciones agrarias vascas fomentarán la utilización de métodos productivos y la elaboración de productos destinados a la cadena alimentaria humana libres de transgénicos o que no utilicen dichos productos.

3.– Las administraciones agrarias vascas velarán por el desarrollo de la producción artesanal. Reglamentariamente, la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco regulará dicha producción. La regulación contendrá, entre otros aspectos, el tipo de producciones amparadas, los requisitos higiénico-sanitarios, el distintivo de calidad que lo identifique, el sistema de gestión y control y la puesta en marcha del Registro de Productores Artesanales. En cualquier caso, la producción artesanal deberá respetar los principios de identificación, seguridad alimentaria y trazabilidad recogidos en el título IV de la presente ley.

4.– Las administraciones agrarias vascas regularán y potenciarán con carácter prioritario los métodos de producción orientados a:

- a) La obtención de alimentos de calidad.
- b) La obtención de productos agrarios a través de la producción integrada.
- c) La obtención de productos agrarios a través de la producción ecológica.
- d) La producción forestal sostenible certificada.
- e) El mantenimiento de especies y razas autóctonas.
- f) El fomento de la diversidad de especies forestales.

5.– La existencia de diferentes métodos de producción se regulará y controlará mediante la elaboración de la normativa pertinente y su aplicación, con el establecimiento de especificaciones técnicas que determinen la compatibilidad de esos diferentes métodos o cultivos.

6.– Las administraciones agrarias vascas velarán por la defensa, promoción y fomento del material genético del País Vasco susceptible de utilización para la producción y elaboración de alimentos o para actividades o usos agrícolas y forestales. Para ello, entre otras acciones, pondrán en marcha los bancos de germoplasma precisos para la conservación de variedades o especies vegetales, agrícolas o forestales, especialmente las autóct-

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden abeltzaintzako arrazen liburu genealogikoak kudeatuko dituzte.

24. artikulua.– Higiene- eta nekazaritza-arloko jardunbide egokiak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, foru-aldundiekin elkarlanean, higiene- eta nekazaritza-arloko jardunbide egokiak ezarriko ditu, eta Autonomia Erkidegorako gutxienezko betekizunak zehaztuko ditu, lurralde historiko bakoitzean aplikatzeko. Horien berri izan beharko dute nekazariak, edozein nekazaritza-jarduera martxan jarri aurretik. Gidak egingo dira, eta, behar izanez gero, aldi-aldi eguneratuko dira.

25. artikulua.– Identifikazioa, elikagai-segurtasuna eta trazabilitatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizleek merkatu-ratuko duten produkzio orok lege honen IV. tituluaren araututako printzipioak bete behar ditu; alegia, identifikazioaren, elikagai-segurtasunaren eta trazabilitatearen printzipioak.

26. artikulua.– Energia berriztagarriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek energia berriztagarrien potentziala garatzeko ekintzak eta neurriak sustatzeko beharrezkoak diren baldintza juridiko, sozioekonomiko eta administratiboak ezarriko dituzte, honako jardueren bidez:

a) Ingurumenarekiko iraunkorrak diren laboreen ustiaketa energetikoa, eta hondakinen erabilera energetikoa jardunbide iraunkor gisa.

b) Energia berriztagarriak erabiltzea eta ustiatzea; bereziki, energia horiek garatzeko behar diren azpiegiturak eskuratzeko bide emango duten proiektu pilotuetan.

c) Kontratu sinatzea, energia berriztagarrien ekoizpenari lotutako ustiategi eta industrien titularren artean.

27. artikulua.– Informazioaren gizartera.

Nekazaritza- eta elikagai-produkzioaren eragileak informazio-gizartera egokitze beharrezkoak diren gaitasunak ezarriko dituzte euskal administrazioek; horretarako, eragile horien eskura jarriko dituzte teknologia berriak, bizi-kalitate eta gizarte-oreka hobea lortze aldera.

II. KAPITULUA LABORANTZA EKOIZPENA

28. artikulua.– Laborantza-ekoizpena.

Nekazaritza-arloko euskal administrazioek kalitatea, ekoizpen integratua eta ekoizpen ekologikoa sustatzeko programak ezarriko dituzte.

tonas, y gestionarán los libros genealógicos de las diferentes razas ganaderas con presencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 24.– Buenas prácticas higiénicas y agrarias.

La Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco establecerá, en colaboración con las diputaciones forales, un conjunto de buenas prácticas higiénicas y agrarias con un nivel mínimo de exigencias para la Comunidad Autónoma, aplicable en cada territorio, que todos los agricultores y agricultoras deberán conocer previamente a la puesta en marcha de cualquier actividad agraria. Se elaborarán las respectivas guías, que serán actualizadas periódicamente si fuera preciso.

Artículo 25.– Identificación, seguridad alimentaria y trazabilidad.

Los productores agrarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco estarán obligados a que toda producción que vaya a ser comercializada cumpla los principios de identificación, seguridad alimentaria y trazabilidad regulados en el título IV de la presente ley.

Artículo 26.– Energías renovables.

Las administraciones vascas establecerán las condiciones jurídicas, socioeconómicas y administrativas necesarias para el fomento de acciones y medidas destinadas a desarrollar el potencial de las energías renovables, impulsando las siguientes actuaciones:

a) Los cultivos ambientalmente sostenibles para su aprovechamiento energético, así como la utilización energética de los residuos como práctica sostenible.

b) Las aplicaciones y el aprovechamiento de las energías renovables, con especial incidencia en los proyectos piloto que permitan disponer de las infraestructuras necesarias para el desarrollo de tales energías.

c) Las relaciones contractuales entre personas titulares de explotaciones e industrias ligadas a la producción de energías renovables.

Artículo 27.– Sociedad de la información.

Las administraciones vascas establecerán las condiciones necesarias para que los agentes de la producción agraria y alimentaria se adapten a la sociedad de la información, poniendo a su servicio las nuevas tecnologías con la finalidad de lograr una mayor calidad de vida y equilibrio social.

CAPÍTULO II PRODUCCIÓN AGRÍCOLA

Artículo 28.– De la producción agrícola.

Las administraciones agrarias vascas establecerán los programas de fomento de la calidad, la producción integrada y la ecológica.

29. artikulua.– Ongarri, hazi, eta produktu fitosanitarioak.

1.– Foru-aldundiek (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin elkarlanean) ongarriei dagokienez egingo duten esku-hartzeak xede hau izango du: konposizio, definizio, deitura, identifikazio eta on-tziratzeari buruzko baldintza tekniko zehatzak aplikatu ahal izateko beharrezko baldintzak sortzea Autonomia Erkidegoan. Baldintza horiek guztiak ezarri behar zaizkio balio-kateko eragile orori, nekazarien eta azken kontsumitzaileen interesak, ingurumena (batez ere, arriskuan dauden gunek), osasun publikoa, langileen segurtasuna eta merkataritza-transakzioen leialtasuna babesteko.

2.– Haztegiatako haziei eta landareei dagokienez, ofizialki kontrolatutako eta ziurtatutako kalitatea duten ugalketa-material begetalen erabilera bultzatuko da. Kontrol hori indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da, eta laborantza-ekoizpena eta landare-osasuna hobetzea izango du xede.

3.– Produktu fitosanitarioei dagokienez, kontrola eta arrazoizko erabilera bultzatu, laborantza- eta baso-ekosistemen iraunkortasuna bermatu, produktuok behar bezala erabiltzen direla ziurtatu, eta erabiltzen dituztenen eta kontsumitzaileen osasuna zainduko da.

30. artikulua.– Landare-osasuna.

1.– Nekazaritza-produktuen landare-osasuna bi alderditan egituratuko da: batetik, prebentzioa, organismo kaltegarriak heda ez daitezen, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko hazi zein laboreei eragiten dieten mota guztietako izurri eta gaixotasunen kontrako borroka.

2.– Zainketa Fitosanitarioaren Sarea eratuko dute nekazaritza-gaietan eskumena duten foru-departamentuek, nork bere lurralde historikoan. Gai fitosanitarioei buruz dagoen informazioa biltzeko eta aztertzeko egingo jardun guztiak bere baitan integratzea du xede. Izan ere, informazio horri esker, landare-produktuei edo bestelako agenteei eragin diezaieketen izurri, gaixotasun eta bestelako agente kaltegarriak garaiz antzeman ahal izango dira Autonomia-Erkidegoan, eta arriskuen ebaluazioa egin. Horrela, arriskuei aurre hartzeko, balizko hedapena eragozteko eta ahal bada errotik erauzteko kontrol-neurriak ezarri eta erabakiak hartu ahal izango dira, aplikatzekoa den sektore-araudiaren arabera.

3.– Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-gaietan eskumena daukan sailak egituratuko ditu Sareak behar bezala funtzionatzeko beharrezko izango diren koordinazio-mekanismoak.

31. artikulua.– Egoera fitosanitariao zaintzea eta jakinaraztea.

Artículo 29.– Abonos, semillas, y productos fitosanitarios.

1.– La actuación de las diputaciones forales, en colaboración con la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en materia de abonos estará dirigida al objetivo de que en la Comunidad Autónoma se den las condiciones necesarias para que puedan aplicarse las precisas exigencias técnicas sobre composición, definición, denominación, identificación y envasado que, simultáneamente y del mismo modo, deben aplicarse a todos los agentes de la cadena de valor, a fin de salvaguardar los intereses de los agricultores y agricultoras consumidores finales, el medio ambiente, en especial de las zonas vulnerables, la salud pública, la seguridad de los trabajadores y trabajadoras y la lealtad de las transacciones comerciales.

2.– En lo referido a semillas y plantas de vivero, se fomentará el uso de materiales vegetales de multiplicación con calidad oficialmente controlada y certificada, en función de la normativa existente con el objetivo de mejorar la producción agrícola y la sanidad vegetal.

3.– En lo referente a productos fitosanitarios, se promoverá el control y el uso racional de los mismos, garantizando la sostenibilidad de los ecosistemas agrícolas y forestales, asegurando su aplicación en condiciones correctas, y preservando la salud de los aplicadores y personas consumidoras.

Artículo 30.– Sanidad vegetal.

1.– La sanidad vegetal de los productos agrarios se articulará en la doble vertiente de prevención, para evitar la propagación de los organismos nocivos, y de lucha contra todo tipo de plagas y enfermedades que afectan tanto a las semillas como a los cultivos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Los departamentos forales competentes en materia agraria crearán, en sus respectivos territorios históricos, la red de vigilancia fitosanitaria, con el objeto de integrar el conjunto de actuaciones orientadas a la recogida y análisis de la información disponible en temas fitosanitarios que posibilite la detección temprana y la evaluación de riesgos en el territorio autonómico de aquellas plagas o enfermedades y de otros agentes nocivos no parasitarios que puedan afectar a los vegetales, productos vegetales u otros agentes, permitiendo la adopción de medidas de control y toma de decisiones para su prevención, evitar su posible propagación y posibilitar su erradicación, cuando ésta sea factible, de acuerdo con la normativa sectorial aplicable.

3.– El departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco competente en materia agraria articulará los mecanismos de coordinación necesarios en relación con el funcionamiento de la red.

Artículo 31.– Vigilancia y comunicación del estado fitosanitario.

Nekazariak, basogintzan aritzen diren langileak, merkatariek, inportatzaileak, profesionalek, eta, oro har, ustiategiak edo landare-estaldura duten bestelako azaleretako titularrek landare-osasunari buruzko araudiaren esparruan jardun beharko dute. Zehazki, honako betebeharrak izango dituzte:

a) Beren laboreak zaintzea eta laboreen egoera fitosanitarioari buruz mota guztietako informazioa ematea, eskumena duten organoek hala eskatzen dutenean.

b) Eskumena duen administrazioari berri ematea, landareentzat edo landare-jatorriko produktuentzat kaltegarriak diren organismoak neurritz gain agertzen badira.

III. KAPITULUA ABELTZAINZA EKOIZPENA

I. ATALA EKOIZPEN ANIMALIAK

32. artikulua.– Abeltzaintza-ekoizpena.

1.– Nekazaritza-arloko euskal administrazioek kalitatea, animalien ongizatea, higiene-arloko jardunbide egokiak, abeltzaintza estentsiboa, abeltzaintza ekologikoa eta basoko artzaintza sustatzeko programak bultzatuko dituzte; halaber, ingurune naturalarekiko inpaktua murrizteko xedez sistema horiek erabiltzen dituzten ustiategiak mantentzea sustatuko dute.

2.– Hobekuntza genetikoko programak sustatuko dira; abeltzaintza-ekoizpenak, horien kalitatea eta lurraldearekiko egokitzapena optimizatuko.

33. artikulua.– Animaliak identifikatzea.

1.– Indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak betez identifikatu beharko dira animaliak. Identifikatzeko betebeharrak animaliak dituzten ustiategiak titularrei dagokie, animalien jabeak badira. Animaliak identifikatzeko sistemak eraginkorrak direla bermatuko dute eskumena duten administrazioek, ganaduaren jarraipena egiteko eta kokapena zehazteko teknika eta bitarteko elektronikoa eta informatikoa instalatuta eta erabilia.

2.– Albaitaritza zerbitzu ofizialek immobilizatu egingo dituzte identifikatu gabeko animaliak. Beharrezko kontrolak egin ondoren, emaitzak kontuan izanda, animaliak identifikatzeko aginduko da, edo, bestela, hiltegiaren edo ustiategiaren bertan hiltzeko, eta, hala badagokio, gorpuak suntsitu eta deuseztatzeko, indarrean dagoen araudia betez. Animalia jabea edo edukitzailea da eragindako kostuen erantzulea beti, eta, gainera, dagokion administrazio-zehapena ezarriko zaio.

34. artikulua.– Animaliak garraiatzea.

1.– Animaliak ustiategi batetik beste ustiategi batera, ustiategi bereko beste ekoizpen-unitate batera, hiltze

Las personas dedicadas a la agricultura, silvicultores, comerciantes, importadores, profesionales y, en general, las personas titulares de las explotaciones u otras superficies con cubierta vegetal, deberán ejercer sus actividades en el marco de la normativa sobre sanidad vegetal, y concretamente deberán:

a) Vigilar sus cultivos y facilitar toda clase de información sobre el estado fitosanitario de los mismos, cuando sea requerida por los órganos competentes.

b) Notificar a la administración competente toda aparición atípica de organismos nocivos o de síntomas de enfermedad para los vegetales y productos vegetales.

CAPÍTULO III PRODUCCIÓN GANADERA

SECCIÓN I ANIMALES DE PRODUCCIÓN

Artículo 32.– De la producción ganadera.

1.– Las administraciones agrarias vascas potenciarán los programas de fomento de la calidad, el bienestar animal, las buenas prácticas de higiene, así como de la ganadería extensiva, ecológica y el silvopastoreo, e incentivarán el mantenimiento de las explotaciones que utilicen estos sistemas con el objeto de reducir el impacto sobre el medio natural.

2.– Se incentivarán los programas de mejora genética, con la finalidad de optimizar las producciones ganaderas, su calidad y su adaptación al territorio.

Artículo 33.– Identificación de los animales.

1.– Los animales deberán ser identificados en las condiciones impuestas por la normativa vigente. La obligación de identificación corresponde a las personas titulares de las explotaciones que contengan animales y en todo caso a sus propietarios y propietarias. Las administraciones competentes garantizarán la eficacia de los sistemas de identificación de los animales mediante la incorporación y el empleo de las técnicas y medios electrónicos e informáticos que permitan el seguimiento y la localización del ganado.

2.– Los animales que no estén identificados serán inmovilizados por los servicios veterinarios oficiales. Tras la realización de los controles necesarios, y según el resultado de los mismos, se procederá a la identificación o se ordenará el sacrificio de los animales en el matadero o en la propia explotación, y, en su caso, la destrucción y eliminación de los cadáveres, cumpliendo la normativa vigente y siendo en todo caso la persona propietaria o poseedora del animal la responsable de los costes derivados, sin perjuicio de la correspondiente sanción administrativa a que haya lugar.

Artículo 34.– Movimiento de los animales.

1.– El traslado de los animales procedentes de una explotación con destino a otra explotación o a otra uni-

edo merkatura eramateko, unean-unean indarrean dagoen araudian ezarritako osasun-baldintzak bete behar dira, eta araudian zehaztutako administrazio- eta osasun-agiriak aldean eramán.

2.– Animaliak indarrean dagoen araudia bete gabe mugitzen badira, atxiki egingo dira, eta, hala badagokio, isolatu. Beharrezko administrazio- eta osasun-kontrolak egin ondoren, jatorrizko lekura bidaliko dira berriz, hiltegiara bestela, edo sakrifikatu egingo dira, indarrean dagoen legedia betez. Animalia jabea edo edukitzailea izango da eragindako kostuen erantzulea beti, eta, gainera, dagokion administrazio-zehapena ezarriko zaio.

35. artikulua.– Animalien ongizaterako baldintzak.

1.– Ustiatagietako titularrek eta animalien jabe edo edukitzaileek dute animaliei higie-ne eta osasun-baldintza onak emateko ardura, bai eta animalien behar fisiologiko eta etologikoetara egokitutako instalazioak jartzeko ardura ere (espezieen eta arrazen arabera). Era berean, animalien ongizateari buruz indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Halaber, animalien ongizatea bermatzeko behar diren neurriak hartu beharko dira uneoro, animaliekin esperimentuak egiterakoan edo animaliak hiltzerakoan.

2.– Animaliak dituzten eraikinek kasuan kasu exijitutako osasun-segurtasunaren gutxieneko distantziak bete beharko dituzte, bai eta unean-unean indarrean dauden baldintza teknikoak ere; horien artean, gune hesituak, garbiketa eta desinfekzio eraginkorra egiten laguntzen duten ekipo eta eraikinak, simaurtegi eta txiza-putzuak (simaurra eta txiza biltzeko eta ondoren erabiltzeko) eta animalia hilak suntsitzeko sistemak izatea, eta animalien ongizateari eragiten dioten beste baldintza batzuk betetzea.

II. ATALA ANIMALIEN ELIKADURA

36. artikulua.– Animaliak elikatzeko produktuak.

Animaliak elikatzeko produktuak dira pentsu eta bazka propioak eta erosiak, aurre-nahasketak, gehigarriak, lehengaiak nahiz helburu horrekin erabilitako bestelako substantzia eta produktuak. Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak elikatzeko erabiltzen eta banatzen diren produktu guztiek osasungarriak eta merkaturatzeko kalitatezkoak izan beharko dute.

37. artikulua.– Produktuen higie-ne eta segurtasuna.

1.– Produktuen segurtasun-arloko politika ikuspegi oso eta integratua oinarritu behar da, eta produktuen trazabilitatea bermatzeko behar diren baldintzak eta mekanismoak ezarri behar ditu, lege honen 52. artikuluan adierazten den moduan.

dad productiva de la misma explotación, a matadero o mercado, se realizará en las condiciones sanitarias y con la documentación administrativo-sanitaria que en cada momento determine la normativa vigente.

2.– El movimiento de animales sin observar la normativa vigente dará lugar a la retención de los mismos y, en su caso, aislamiento, y, una vez realizados los controles administrativos y sanitarios necesarios, serán reenviados a su lugar de origen o al matadero o sacrificados, cumpliendo la normativa vigente y siendo en todo caso el propietario o tenedor del animal el responsable de los costes derivados, sin perjuicio de la correspondiente sanción administrativa a que haya lugar.

Artículo 35.– Requisitos para el bienestar de los animales.

1.– Las personas titulares de las explotaciones y las personas propietarias o poseedoras de animales son las responsables de procurar a los mismos unas buenas condiciones higiénico-sanitarias y unas instalaciones adecuadas a sus necesidades fisiológicas y etológicas en función de su especie y raza. Igualmente, se deberán adoptar en todo momento las medidas necesarias para garantizar el bienestar de los animales cuando se desarrollen con ellos prácticas de experimentación o sacrificio.

2.– Las instalaciones que alberguen animales deberán cumplir las distancias mínimas de seguridad sanitaria exigidas en cada caso y las condiciones técnicas que en cada momento se hallen en vigor, tales como necesidad de contar con áreas cercadas, existencia de equipos y construcciones que faciliten una eficaz limpieza y desinfección, estercoleros y fosas de purines para almacén antes de su aprovechamiento posterior, disposición de un sistema de eliminación de animales muertos, u otras que afecten al bienestar animal.

SECCIÓN II ALIMENTACIÓN ANIMAL

Artículo 36.– Productos para la alimentación animal.

Se entenderá por productos destinados a la alimentación animal los piensos y forrajes propios y comprados, así como las premezclas, los aditivos, las materias primas y otras sustancias y productos empleados para tal fin. Todos los productos que se empleen o distribuyan para la alimentación animal en la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán reunir las características de ser sanos y de calidad comercial.

Artículo 37.– Higiene y seguridad de los productos.

1.– La política en materia de seguridad de los productos deberá basarse en un planteamiento global e integrado que establezca las condiciones y mecanismos necesarios para garantizar la plena trazabilidad de los mismos, en los términos recogidos en el artículo 52 de la presente ley.

2.– Prozesuaren etapa guztietan (alegia, ekoizpenetik merkaturatzera), gehigarriak, aurre-nahasketak, lehen-gaiak eta animaliak elikatzeko erabilitako beste substantzia eta produktuak ekoizten dituztenak, pentsu-enpresak ustiatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, eta abeltzainak (beren ustiategian) dira elikagaien segurtasuna zaintzearen arduradun nagusiak; halaber, indarrean dagoen araudiak ezarritako jardunbide egokiak eta baldintza orokorrak edo zehatzak betetzeaz ere arduratuko dira.

3.– Lege honen ezarpen-eremutik kanpo daude al-baitaritzako sendagaiak egin, banatu eta ematea, bai eta animalien ekoizpenean eta osasunean erabilitako pentsu sendagarriak prestatu, merkaturatu eta erabiltzea ere. Gai horietarako, berariazko araudia ezarriko da. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan nekazaritza-eta osasun-arloetako eskumena duten sailak eta lurralde historikoetako foru-aldundiak behar bezala koordinatuko dira, aipatutako berariazko araudia egoki aplikatuko da Euskal Autonomia Erkidegoan.

38. artikulua.– Erregistroa eta baimena.

1.– Gehigarriak, aurre-nahasketak edo pentsu konposatuak egiten edo merkaturatzen dituzten animalien elikagaigintzako establezimenduek, beren jarduera gauzatu ahal izateko eta jarduera horri ekin aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoan dagokien erregistroan izena emanda egon behar dute, edo dagokien baimena eduki.

2.– Arauz ezarriko dira baimenak eta erregistroak eteteko, berritzeko edo aldatzeko baldintzak edo betekizunak, bai eta baimenak eguneratzeko baldintzak ere. Administrazio eskudunak establezimendu baimenduen zerrenda egingo du. Establezimenduen identifikazioa bermatzeko, inskripzio-zenbaki bat emango dio bakoitzari.

39. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

1.– Albaitaritza zerbitzu ofizialek immobilizatu egin dituzte animaliak elikatzeko produktuak, lehengaiak eta bestelako osagaiak, honako kasu hauetan:

a) Produktu, lehengai eta osagai horiek egin edo merkaturatzeko establezimenduak eta gai horiek dauzkaten abeltzaintza-ustiategiak ez badaude dagokien erregistroan izena emanda, horretarako betebeharra izanik.

b) Baimen-araubidearen baldintzak ez badira betetzen, eta gizakiaren edo animalien osasunerako arriskua berehalakoa eta larria bada.

c) Ez badute legeak eskatutako baldintzen arabera identifikaziorik eta etiketarik.

2.– Immobilizazioa bertan behera geratuko da, hurrenez hurren, ondorengo baldintza hauek betetzen direnean:

2.– Los fabricantes de aditivos, premezclas, materias primas y otras sustancias y productos empleados para la alimentación animal, las personas físicas o jurídicas explotadoras de las empresas de piensos, y los ganaderos y ganaderas dentro de sus explotaciones, son los principales responsables de velar por la seguridad de los alimentos en todas las etapas del proceso, desde la producción hasta la comercialización, y de seguir y cumplir las buenas prácticas y los requisitos generales o específicos que establezca la normativa vigente.

3.– Quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente ley, rigiéndose por su normativa específica, la fabricación, distribución y dispensación de medicamentos veterinarios, así como la preparación, puesta en el mercado y utilización de los piensos medicamentosos utilizados en producción y sanidad animal. Entre los departamentos competentes de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de agricultura y sanidad, y las diputaciones forales de los territorios históricos se establecerá la debida coordinación para la correcta aplicación de la citada normativa específica en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 38.– Registro y autorización.

1.– Para poder llevar a cabo sus actividades, los establecimientos del sector de la alimentación animal que elaboren o comercialicen aditivos, premezclas o piensos compuestos deberán estar inscritos en el registro correspondiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco o disponer de la oportuna autorización con carácter previo al inicio de sus actividades.

2.– Reglamentariamente se establecerán las condiciones o requisitos para la suspensión, renovación o modificación de las autorizaciones y registros así como para la actualización de las primeras. La administración competente elaborará un listado de establecimientos autorizados con un número de inscripción que garantice la identificación de cada uno.

Artículo 39.– Incumplimientos.

1.– Los servicios veterinarios oficiales procederán a la inmovilización de los productos, materias primas y otros componentes destinados a la alimentación animal en los siguientes casos:

a) Cuando los establecimientos en que se elaboren o comercialicen, así como las explotaciones ganaderas en las que se ubiquen, no se encuentren inscritos en los registros correspondientes estando obligados a ello.

b) Cuando se detecte incumplimiento de las condiciones del régimen de autorización y sea claro el riesgo inminente y grave para la salud humana o animal.

c) Cuando carezcan de identificación y etiquetado en las condiciones legalmente exigibles.

2.– La inmovilización se levantará, respectivamente, cuando se produzcan las siguientes circunstancias:

a) Establezimendua edo instalazioa legeztatzen diren.

b) Baimena lortzeko baldintzak betetze aldera neurriak eta jarduerak abian jartzen direnean.

